

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak enpresa batek arana era mekanizatuan biltzeko modua erakutsiko du

Helburua da fruitu horren kostuak murriztea eta landutako hektareetan izandako atzerakada geldiaraztea

Jueves, 25 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak antolatuta, ortuzain-talde bat arana era mekanizatuan biltzen erakusteko jardunaldi batean izan zen iragan egunetan; jardunaldi horren helburua da, fruta hori merkaturatzeko laborantzarako lursaila bideragarria dela frogatzea.

Nafarroako nekazaritza-industriak aran-kopuru handia kontsumitzen du eta laborantza

horren mekanizazioaren xedea ekoizpen-kostuak murriztea da, eskuz egindako bilketa-lanetan eskatzen den eskulanaren tasa altuak larriagotu duena; eta lortutako produktu gordinaren % 50a baino handiagoko balioa izan dezake. Horren adibide, aurten kontserben industriak *Reina Claudia Verde* aranaren kilo 0,18 euroan erosi du eskuz egindako bilketaren batez besteko kostua kiloko 0,12 eta 0,15 euro artean izan denean. Egoera horren ondorioz, aranak etengabeko beherakada izan du landatutako hektarea-kopuruari dagokionez (282 1985. urtean eta 128 gaur egun). Sistema mekanizatu berriak bilketa-kostua 0,03-0,05 €/Kg-ra murriztu du.

Bilketarako gero eta makina gehiago erabiltzen da azken urteotan Nafarroako patxarana egiteko, basaranaren laborantza zabaldu egin dela-eta. Makina horiek traktoreari lotutako alderantzikatutako aterkian oinarritzen dira, eta adarrak astinduz fruta erori arazten duen bibragailu bat du. Makina horiek moldagarriak dira, eta Nekazaritza Kudeaketako Institutu Teknikoak (ITGA), jardunaldia antolatu duen Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoa, hainbat saiakuntza egin du, eta saiakuntza horiek 2007an Sartagudan antolatutako jardunaldi bateko ikastaroan erakutsi ziren.

Hurrengo pausoa izan da, ITGAK teknika zehatzekin zuhaitzak landatutako lursail batean, prozesuaren bideragarritasuna eta ekonomia frogatzea bilketan makinaria erabili ahal izateko. Probak erakutsi zuen traktore-gidari batek eta bi langilek eguneko hektarea bat bildu dezaketela,



Aranak biltzeko makina.

gorago aipatutako kostuak murriztuz.